

2026ko otsailaren 26ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Karine Perez, Kattalin Duhalde, Samuel Biscay Virginie Sabaloue, Sabine Auge, Anne Marie Darguy, Chantal Echevertz, Maité Oxarango, Patrick Barneche, Ramuntxo Oteiza, Hervé Parachou, Philippe Mongabure eta Arño Gastambide

Excusés/barkatuak: Virginie Sabaloue, Koxe Barbier, Frédéric Hernandez

1. Finantza Kontu Bakarraren aurkezpena eta bozkatzea

FKBk (orain arte Kontu Administratiboa deitzen zena) kontu aldiko emaitzak aurkeztu ditu. Ordenatzaileak kontuak urtero aurkeztu behar ditu, ekainaren 30a gabe.

Kontu horiek hauteskundeak aitzin aurkeztuz gero, agintean den taldeak bilan garbia egin dezake ondoko hilabeteko aginte-eskualdatzea gabe. Horra kontuen laburpena (ikus eranskinetan)

2025eko FINANTZA KONTU BAKARRA – AIHERRAKO HERRIKO ETXEA

Inbestimendua

Gastuak	Aurreikusia:	1 775 224,00
	Egina	1 264 082,53
	Egitekoa:	510 010,00

Irabaziak	Aurreikusia:	1 775 224,00
	Egina	1 228 183,57
	Egitekoa:	154 640,00

Funtzionamendua

Gastuak	Aurreikusia:	998 843,40
	Egina	563 189,14
	Egitekoa:	0,00

Irabaziak	Aurreikusia:	998 843,40
	Egina	1 014 221,30
	Egitekoa:	0,00

Kontu aldiaren bururatzeko emaitza

Inbestimendua:	-35 898,96
Funtzionamendua:	451 032,16
Emaitza orokorra:	415 133,20

Funtzionamendu gastuak		
Kapitulua	Zer gastu mota	Zenbatekoa
011	Kargu nagusiak	166 589,85
012	Langile-karguak eta dagozkien gastuak	172 939,01
014	Produktuen arintzea	3 149,00
65	Ardurako beste kudeaketa produktuak	175 524,22
66	Finantza-karguak	13 949,30

Funtzionamendu irabaziak		
Kapitulua	Zer irabazi mota	Zenbatekoa
013	Karguen arintzea	1 466,39
70	Zerbitzuen, jabegoaren eta salmenten etekinak	78 731,94
73	Orotariko zergak	219 103,04
731	Zerga zuzenak	281 520,00
74	Diru-zuzkidurak eta parte hartzeak	190 111,21

042	Sailen arteko transferentzia ordena operazioak	31 037,76
	GASTUAK OROTARA	563 189,14

75	Ardurako kudeaketa produktuak	55 198,05
76	Finantza-produktuak	47,01
77	Produktu bereziak	488,26
002	Funtzionamendu-soberakina erakarria	187 555,40
	IRABAZIAK OROTARA	1 014 221,30

Kontu administratiboari buruzko iruzkina:

laz aipatu nizuen 2024ko "emaitzak" ezohikoetan sailkatu behar zirela, lursailak eraikuntzarako egokitu behar zirelako, eta horietarako aurrekontu nagusitik ekarpena egin behar zelako; kontuak bururatzean itzuli zitzaion.

2025eko emaitza klasikoagoa da gure gaitasunen alorrean, baina, hala ere, 2026an behar bezala funtzionatzeko eta inbestitzeko parada emanen digu.

Atera autofinantzamendu-gaitasuna aurreikusitakoa baino doi bat handiagoa da, 294 000 €-koa, eta horri esker gure maileguak (60 000 €) errazki ordaintzen ahalko ditugu baita ere LTEPren urte-sariak (70 000 €).

Osasun onaren beste markatzaile bat, zorraren ttipitzeko gaitasuna da, 3 urte baino guttiagokoa baita, gehienez 7 urtekoa izan daiteke (aurrekia eta zorraren arteko erlazioa neurtzen duen kolektibitateen finantza-analisiaren ratioa).

Ezinbestekoa izanen da 2026ko aurrekontuaren bidez autofinantzamendu-gaitasun gordin nahikoa ateratzea, besteak beste, handiagoa izanen den gure maileguen zenbatekoa ordaintzeko eta inbestimendu berriak egiteko, hala nola herri barnearen zeharkatzea, Garraldako Erreka zubia, edukiontzien lurperatzea.

FKB bozkatu da, 11 boz alde; jaun auzapezak ez du bozketan parte hartu.

2025ean onartu zergen orotaraztea (Lurralde Eremuko zerga apalenetarik).

Jabego eraikien gaineko Lur Zerga % 24,16

Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur Zerga % 30,46

Bizitegi zerga % 12,25

ZORRAREN EGOERA

Maileguen urte sarien taula					
Maileguak	Hastapeneko zenbatekoa	Hastapena/Bukaera	Oraino zor den kapitala 2025/12/31n	2026	2027
Beltzagitearen zaharberritzea	250 000,00	2025/2039	237 282,00	13 194,54	13 689,56
Apezetxearen berritzea	100 000,00	2011/2026	7 479,26	7 479,26	
Eraikin anizkoitz baten eraikuntza	320 000,00	2014/2028	57 142,66	22 857,16	22 857,16
Apairi/Denen Etxearen berritzea	130 000,00	2017/2031	54 912,90	8 871,26	8 981,78
Apairi/Denen Etxearen berritzea	120 000,00	2017/2031	48 000,00	8 000,00	8 000,00
Herriko argien berritzea	22 539,00	2023/2038	18 204,84	1 463,60	1 473,11
Orotara	942 539,00		423 021,66	61 865,82	55 001,61
LTEP atxikitze hitzarmena					
Elissalde lursaila 20 urte	365 089,00	2013/2032	92 904,53	13 272,08	13 272,08
Beltzategia etxea 24 urte	265 858,00	2017/2041	140 362,73	9 574,09	9 574,09
Estekatea lursaila 6 urte	223 306,00	2023/2028	111 653,25	37 217,75	37 217,75
Arostegui lursaila 12 urte	120 375,00	2025/2036	110 344,47	10 031,32	10 031,32
Malegarie lursaila	218 508,50	2026/2037	218 508,50	18 209,04	18 209,04
Orotara	1 193 136,50		673 773,48	88 304,28	88 304,28

OROTARA	2 135 675,50		1 096 795,14	150 170,10	143 305,89
----------------	---------------------	--	---------------------	-------------------	-------------------

2. BIGABAT HBHSaren eta herriaren arteko funtzionamendu-hitzarmena

Aiherrako herria BIGABAT Herriarteko Eskola Elkargoaren barne da.

BIGABAT HBHSeko kide diren herrien parte hartzea kalkulatzeko herrian bizi diren haurren eta bi herrietako haur guzien arteko erlazioa egin behar da. Herri bakoitzaren parte hartzearen zenbatekoa ordaintzeko gelditzen dena biderkatuz finkatzen da (gastuak ken zerbitzuaren irabazi propioak). Herriko Kontseiluari proposatu hitzarmen-proiektuak parte hartzearen kalkulatzeko moldeak zehazten ditu baita ere ordainketa moldeak.

Adibidez: *Aiherrarako banaketa kalkulua = $40/82 = \% 48,78 = A$*
Izturitzerako banaketa kalkulua = $42/82 = \% 51,22 = B$

BIGABAT HBHSaren eta herriaren arteko funtzionamendu-hitzarmena onartzeko proposamena.

3. Herriko langileak BIGABAT HBHSren esku uzteko hitzarmena

BIGABAT HBHSren funtzionamendu egokia bermatzeko, beharrezkoa da Aiherrako herriko animazio langile bat eta teknika laguntzaile bat horren esku uztea. Langile bakoitzaren esku uzte baldintzak Izturitzeko herriaren eta BIGABAT HBHSren arteko hitzarmenetan zehaztuak dira.

Herriko langileak BIGABAT HBHSren esku uzteko hitzarmena onartzea proposatu da.

4. Aisialdi zentroaren eta herriaren arteko funtzionamendu-hitzarmena

Izturitzeko Arberoan Alaiki aisialdi zentroa lau herriren izenean kudeatua da: Aiherra, Izturitze, Donoztiri eta Donamartiri.

Herriek aisialdi zentroan duten parte hartzeak hiru ardatz ditu: asteazkenak, opor laburrak eta opor luzeak. Kategoria horietako bakoitzerako banaketa-gakoa kalkulatzeko, herrian bizi diren haurren eta lau herrietako haur guzien arteko erlazioa egiten da. Herri bakoitzak ardatz bakoitzerako duen parte hartzearen zenbatekoa ordaintzeko gelditzen dena banaketa-gakoaz biderkatuz finkatzen da (gastuak ken zerbitzuaren irabazi propioak).

Herriko Kontseiluari proposatu hitzarmen-proiektuak parte hartzearen kalkulatzeko moldeak zehazten ditu baita ere ordainketa moldeak.

Aisialdi zentroaren eta herriaren arteko funtzionamendu-hitzarmena onartzea proposatu da.

5. Herriko langileak aisialdi zentroaren esku uzteko hitzarmena

Arberoan Alaiki aisialdi zentroaren funtzionamendu egokia bermatzeko, beharrezkoa da Aiherrako herriko animazio langile bat horren esku uztea. Langilearen esku uzte baldintzak Aiherraren eta Arberoan Alaikiren arteko hitzarmenean zehaztuak dira.

Herriko langileak aisialdi zentroaren esku uzteko hitzarmena onartzea proposatu da.

Lau hitzarmen horiek izenpetzea aho batez onartu da.

6. Neguteko landa-bidearen erregularitzea

Auzapezak 1981eko apirilaren 23ko eta ekainaren 26ko eztabaidak gogorarazi ditu, zeinetan Herriko Kontseiluak inkesta publiko bat egin zuen bi landa-bide kentzeko eta besterentzeko, horien artean, Negutera landa-bidea.

Aurreikusi zen inkesta publikoaren bukaeran bidea SALLABERRY jaunari (egoiliar jabe bat) utziko zitzaiola. Azkenean, honek bakarrik bidearen parte bat eskuratu zuen eta beste partea herriaren jabegoan gelditu zen. Herriak ez du baliatzen, bide zati hori BENAC familiaren etxera baizik ez baita heltzen, eta familiak bidea beti entretenitu du.

Proposatu da 247m²-ko lehengo landa-bidea 0.80€/m²-tan uztea.

Herriko Kontseiluak onartu du.

7. Emaizta baten onartzea baldintzarik eta esleipenik gabe

Oihala elkarteak sortu zen Hazparnealdeko herri elkargoak erosi herriarteko karpa kudeatzeko. Karpa hori herri frankok erabili dute, baina ez zen biziki egokia, eta obrak behar zituenez, saldu da. Elkartearen kontuak bururatzeko tenorea jina zen.

Kontuan harturik Oihala elkarteak proposatu duela 634 €-ko emaitza bat kitorik, baldintzarik eta esleipenik gabe; LKKOko L.2242-1 artikulua arabera, herriko kontseiluak deliberatu behar duela herriari egin emaitza oro onartzeko; LKKOko L.2122-22 artikulua baimena ematen diola auzapezari horrelako emaitza baten onartzeko, baldintzarik eta esleipen berezirik gabe deno;

Proposatu da Oihala elkartearen 634€-ko emaitza onartzea. Herriko Kontseiluak onartu du.

Gai orotarik:

- Bozketa bulegoaren atxikitzea martxoaren 15ean
- Argibide bilkura hondakinen bilketa zerbitzu berriari buruz eta ezagugailuen banaketa: martxoaren 17an, asteartean, 19:00etan, Denen etxean
- Korrika, martxoaren 19an, 22:00etan, harrobiaren bidegurutzean; Herriko Etxeak kilometro bat erosi du.
- Biztanle kontaketa emaitza
- Beharbada aisialdi zentroa Aiherran iraganen da 2026ko udan.